

Buletineko gaiak:

1. Urtarrilak 20: jantokiko oharra
 2. Webgune berria
 3. 'Txinpart!' 76
- Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Apartekoak

Berri orokorrak

1. Urtarrilak 20: jantokiko oharra

Urtarrilaren 20a, San Sebastian Eguna, familia batzuentzat egun berezia izanik, ezinbestekoa zaigu **jantokira etorriko diren ikasle kopurua aurrez jakitea**. Beraz:

- Urtarrilaren 20rako JANTOKIAN aldaketaren bat (alta, baja) egin behar baduzue, [bete inprimaki hau](#). **URTARRILAREN 17a astelehena, izango da azken eguna (idazkaritzako ordutegiaren barruan)**.
- Ondoren adierazten dizkiguzuen bajak kobratu egingo ditugu.

Mesedez, arreta berezia eskatzen dizuegu gai honekin, jantokiko zerbitzuaren antolaketarako ezinbestekoa baitzaigu ahalik eta informazio zuzenena edukitzea.

2. Webgune berria martxan

Martxan da haurtzaroikastola.eus webgune berria. **Haurtzaro Ikastolako komunikazioaren bihotza izatea da asmoa, gainontzeko tresnen erdigunea**, oinarria eta iturria. Aurrerantzean horixe izango da zuekin komunikatzeko gure tresna nagusia.

BETA bertsioa da lehenengo kaleratu duguna. Zer esan nahi du horrek? **Izan ditzakela akatsak eta hobetu beharreko gauzak, baina horiek ibilian ikusiko eta hobetuko ditugula**. Modu honetan, zuek erabiltzearekin batera, jakingo dugu zer dugun konpontzeko, hobetzeko, gehitzeko, kentzeko... Webgune bizia izango da denen ekarpenei esker, alegia.

Pazientzia pixka bat eskatu nahi dizuegu. Eskerrik asko!

3. Txinpart! aldizkariaren 76. zenbakia

Dagoeneko kaleratu dugu Haurtzaro Ikastolako **Txinpart! Aldizkariaren 76. Zenbakia**.

Webgune berrian irakur dezakezue. Gozatu!



Eskolaz kanpoko ekintzak

1. Haurtzaro Mendi Taldearen laguntza eskaera

Haurtzaro Mendi Taldea martxan hasiko da eta abenduan buletinean adierazi genuen bezala, gurasoen laguntza ezinbestekoa da jarduera hau aurrera eramateko. **Beraz, LH3tik DBH4ra bitarteko ikasleen guraso baldin bazarete eta animatzen bazarete, estraeskolarrak@haurtzaro.ikastola.eus** helbide elektronikora bidali mezua lan taldera animatzen zaretela adieraziz.

Eman beharreko datuak:

- IZEN-ABIZENAK
- SAKELAKO TELEFONOAREN ZENBAKIA
- HELBIDE ELEKTRONIKOA

Eskerririk asko aldeztu aurretik.

2. Haurtzaro Mendi Taldearen irteera: urtarrilak 23

Urtarrilaren 23an egingo du Haurtzaro Mendi Taldeak aurtengo lehen irteera, **goizez eta Oiartzunen**. Zehaztasun gehiago datorren astean emango dizkizuegu.

Bitartean, **izena eman dezakezue [inprimaki honetan](#)**. Izena emateko epea urtarrilaren 21eko 16:30era arte egongo da zabalik. Animatu!

Apartekoak

1. Kometak zerura, bihar, Abaraxkan

Ba al zenekien **Kometaren Nazioarteko Eguna** ere badagoela? Bai, urtarrilaren 14ean da.

Horregatik **bihar larunbata 15** denen artean kometak egingo dituzte Abaraxkan, eta ondoren kalera aterako dira hegan eginaraztera. **16:30ean jarri dute hitzordua Abaraxkan**. Animatu!



2. Sahararentzat janari bilketa

Saharako errefuxiatuen kanpalekuetara bidaltzeko elikagaiak jasoko dituzte El Watan elkarteko kideek.

Ikastolako bilketa urtarrilaren 17tik 26ra egingo dugu.

Ohi bezala, elikagai iraunkorrak ematea eskatu dute: **pasta, arroza, olio, lekaleak...** Bilketan parte hartzen duten **ikasleek gelan utzi beharko dituzte ekarritakoak.**

